

INTERKOOPERAZIOA-KOOPERAZIOA

Arizmendiarietak beti aipatzen zuen kooperatiben arteko koordinazioa beharrezkoa dela sinergia eta ekonomi eskalak hobetzeko eta etorkizuna ziurtatzeko gizartea hobetu nahi baldin badugu.

Interkooperazioa MONDRAGONen Printzipio kooperatibo bat da eta hau da diferentziarik handiena beste munduko lan elkartuko kooperatibekin konparatuz.

Mundo mailan lan elkarteko kooperatiba asko dago, gehienak oso txikiak, baina ez dago beraien arteko talderik gure Esperientzian gertatzen den bezala. Kooperatiba gehienak badira bere Federazio kooperatiboaren bazkide, baina ez dago beraien arteko elkar harremanik.

MONDRAGONen sinergia eta ekonomi eskala errealak lortzen dira kooperatiben artean, hala nola, pertsonalaren erreubikazioa lanik gabe daudenekin, zuzendarien mugimenduak, prestakuntza bateratua, prestamo interkooperatiboak, gestio modelu berritzaileak, erosketa bateratuen merkeagotzea, ezagutzaren elkartrukaketak, kooperatiba batzuen arteko proiektu produktiboak, etabar.

Arriskutsua da kooperatiba bakoitza mundu itxi bat bihurtzea. Kooperatiba arteko elkartasunean pentsatu behar dugu, horixe baita baliabide eta bide bakarra hazkundearekin eta helduta-sunarekin loturiko beste arazo batzuei erantzuteko: egoerei egokituko zaien bizi espazio batean pentsatu beharra dago. p488

Beste gogoeta batzuk Interkooperazioa-Kooperazioaz:

Gure kooperatiba saioa horixe da: askatasun eta zuzentasun giroan langileek sorrarazitako elkartasun erakundeen taldea. p548

Nire aburuz, giltzarria da eta, nahi baduzue, sekretu atomikoa, bizitza soziala irauliko duena. Klase arteko kolaborazioa, herriaren eta agintarien arteko eta agintarien eta herriaren arteko kolaborazioa eta, teorikaren eta espirituaren kolaborazioa; horixe da benetako bizitza sozialaren sekretua eta bake sozialaren giltzarria. Ez da nahikoa nagusiek ekintza onak egitearekin, ekintza horietan langileek parte hartu behar dute; ez da nahikoa langileek erreforma handiez amets egitearekin, nagusiek erreforma horietan esku hartu behar dute; ez da nahikoa agintariak eginahalak egitearekin, herriak agintariokin elkartu behar du. Agintariak herritarrengandik bereizita dauden lekuan ezinezkoa da bizitza sozial espontaneorik sortzea; nagusiek hartzen duten bidean langileak sartzen ez badira, bakea itxurazkoa baino ez da izango eta edozein unetan engainua ustekabe eta harridura bihurtuko da. Gauza guztietan kolaboratu beharra dago, dena denon ahaleginaren eta sakrifizioaren fruitu izan dadin eta loria ere denona izan dadin. p319

Batasuna da ahulen indarra. Elkartasuna da gure indarrak multiplikatzen dituen palanka ahaltsua. p322

Formulazio kooperatibo teorikoaren nahiz praktikoaren elementu konstantea elkartasuna da. p339

Gure indarra ez da borroka bihurtzen, Lankidetzaz baizik. p340

Nork bere morrontzak gaintzeko, oinarri sozial zabaleko egitura komunitarioak sendotu behar dira. p315

Elkartasun espiritu ireki batek elikatzen du mugimendu kooperatibista. Helburua urruti eta oso goian dago: mundu mailako erregimen kooperatibista solidarioaren eraikuntza. p434

Bakartasunera ez baina Elkartasunera emanak. p342

Ordena sozial berri bat ezartzeko, elkartasunez jardun behar dugu eta ez gerrillari gisa. p436

Fedea izan behar dugu gure boterean, gure batasunaren eta gure elkartasunaren boterean, bizitza sozial eta ekonomiko osoan dugun inplikazioan, bigarren mailako postuetara lerratuta barik. p502